

INFORMAZIO ENPRESA

1. GAIA: SUBJEKTU JURIDIKOAK

Pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak

Pertsona fisikoak

Pertsona fisikook nortasun juridikoa dugu, jaio garen momentutik.

Pertsona juridikoak

Fisikoak ez diren izateak dira, nortasun juridiko baten jabe egiten direnak
Zuzenbidearen arabera dagozkien baldintzak betez. Propio sortzen da legearen aurrean
jardun ahal izateko

Subjektu juridikoen gaitasunak (pertsona fisiko nahiz juridiko)

- **Ekiteko** gaitasuna. hau da, 'jardun ahal izatea' ondorio juridikoekin
- **Edukitzeko** gaitasuna. hau da, 'ondasunak' edota 'eskubideen' jabe izatea.
- Norbere ekintzen **erantzule** izateko gaitasuna. Hau da, erantzukizuna edukitzea
besteen aurrean.

Pertsona juridiko ezberdinen ezaugarri komunak:

Organoen bidez jardutea

- Organo **asanblearioa** edo eztabaidarako organo. Akzionistak daudenean,
akzionisten batzarra. Hauek boterea dute administrazio kontseiluk kideak
hautatu, kanporatu... egiteko.
- Organo **exekutibo** edo erabakitzailea. Administrazio kontseilua alegia.

Pertsona juridikoek **erantzukizun zibila** besterik ez dute. Ez dute erantzukizun penalik. Enpresa
da erantzukizun zibilaren erantzule: diru kontuak... ondorio penalak aldiz pertsona fisikoek
pairatzen dute, enpresaren jabeak alegia.

Helburuaren arabera, bi motatako pertsona juridikoak:

Dirua irabazteko asmorik gabeak

- Elkarrekin eta fundazioak

Dirua irabazteko asmodunak

- Merkataritza-sozietateak

2. GAIA: ELKARTEAK ETA FUNDAZIOAK. IRABAZI ASMORIK GABEKO PERTSONA JURIDIKOAK

A) ELKARTEAK

Elkarte bat, borondatez pertsona batzuen artean (hiru gutxienez) osatzen den taldea da helburu amankomun batzuekin eta inolako etekin ekonomikorik ateratzeko intentzioarekin. Helburu amankomun batzuk praktikan jartzeko biltzen dira eta beraien ezaguerak, aktibitateak eta baliabideak konpartitzen dituzte. Irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak dira. Finkatutako arau batzuen arabera funtzionatu behar du.

- **Irabazi asmorik gabekoak:**

- Elkarateak sortzen dituen soberakinak edo etekinak bazkideen artean ezin banatzea da ondorio nagusia. Hori bai, soberakin horiek inbertitu daitezke elkaratearen jardueraren edo helburuari bultzada bat emateko.
- Jardun ekonomikoa izan dezakete: Lan egin dezaket eta soldata bat jaso edo nire aldizkariko publizitatea saldu edo dena-delakoa...
- Etekinak ezin banatzea esan nahi du soilik: Hori bideratu behar da enpresaren jarduerara inbertitzera.
- Giza baliabideei dagokienez pertsonak kontratatu daitezke.

Baldintzak: [\(*Elkarte bat nola sortu 12. Orria PDF\)](#)

- Gutxienez **hiru pertsona**
- Legez, **ez da kapital sozial bat** aurkeztu behar.
- **Izenari** dagokionez:
 - Ezingo du izan bere nortasunari buruzko edo bere izaerari buruzko nahasmena sortzen duen izenik (akronomimo, hitz, simbolo...).
 - Debekatutako adierazpenak edo pertsonen eskubideen aurkakoak ezin dira jarri.
 - Aldez aurretik erregistratutako izenekin nahasmena sortzen duten antzekotasunak jartzea debekatua dago
- **Helbidea:** Helbide sozial bat behar du elkarateak. Fisikoki edo geografikoki egoitza ofiziala non dagoen adierazi behar da. Administrazioaren gutunak iristeko...
- **Estatutuak:** [\(*Elkarte bat nola sortu 14. Orria PDF\)](#)

- Elkarre baten funtzionamenduaren oinarritzko arauak dira Estatutuak, eta arau juridikoaren izaerarik ez badaukate ere, lotesleak dira bazkideentzat, borondatez jartzen baitira arau horien menpe.
- Bertan: izena, helburua, helbide soziala, jarduteko lurraldea, jarduera bera, organoak, iraupena, funtzioak, desegiteko arrazoiak, kontabilitatea... DENA

Organoak:

- **Zuzendaritza Batzordea:** lehendakari, idazkari eta diruzainarekin. (Organo exekutiboa)
- **Bazkideen batzarra** (organo asanblearioa). Zuzendaritza Batzordea honen menpe dago

Beste ezaugarriak:

- **Printzipio demokratikoen** arabera izan behar da elkarrearen barne funtzionamendua.
- Elkarreak **ezin** dira izan **Estatuaren, alderdi politikoen edota enpresa pribatuen menpeko**
- **Arau baztertzaielak ezin dira jarri kideak onartzerakoan.** Printzipio demokratikoak jarraitu behar dira eta estatutuetan jarri behar dira kide izateko baldintzak. Norbaitek sartzeko interesa badu eta betetzen baditu, onartua izan behar da. **Kanporatzeko** berdin, estutuen arauak urratu behar ditu, bestela ezin kanporatu.
- **Erregistroari jakinarazi behar zaio elkarrearen sorrera,** hau da, **administrazioari.** Eremu geografikoaren arabera lekua ezberdina izango da. Dena ondo badago administrazioak ezin du ukatu gure sorrera, solik paperen bat falta bada hura eskatu.
- **Elkarrean elkarreak sor daitezke. Federazioak eta Koordinadorak.** Elkarrean ezaugarri berdinak dituzte desberdintasun bakarrarekin. Kasu honetan bazkideak pertsona juridikoak (elkarreak) izango dira eta ez pertsona fisikoak (pertsonek elkarre baten bazkideak direnean alegia)
- **Elkarreak desegitean,** estatutuetan agertu behar nori eman ondasunak (antzeko helburuak dituen beste elkarre batentzat izan ohi dira). Zehaztu gabe badago, administrazio publikoak hartuko ditu.
- **Administrazio judizialak soilik erabaki dezake elkarre baten desegitea** edo inskripzioa ukatzea. Udal batek, gobernuak... ezin itxi elkarre bat.
- **Elkarrearen forma juridikoa hartu dezakete hedabideen jabe edo argitaratzaile diren antolakundeek.** Adib eta kitto. Normalean komunikabide txikiek dituzte atzetik elkarreak. Adibideak:
 - Xaloea telebista
 - Kitto
 - Hala Bedi
 - Geuria

***DOBERA** elkarreak Kronika hedabidea du. Aztertzekeo adibidea.

1993an sortu zen euskera elkarrea, Hernanin euskeraren normalizazioaren ekimenak bultzatzeko. Garai hartan sortu ziren horrelako elkarre asko. Hasieran Hernaniko kronika orain Urumeako kronika da. Elkarreko (Dobera) bazkideak. Erabakiak haien arteko batzarretan hartu.

Elkarrearen organo kudeatzailea edo exekutiboa aldiz zuzendaritza batzordea da. Elkarrearen arabera langileak edo ez daude. Kasu honetan bai, egunkaria egin behar

delako 9 bat pertsona (kazetari, administrazio...) Doberak ere hiru pertsona ditu kudeaketa lanetan. Hauek guztiak soldata dute, kontratupean daude.

Doberako estatutuak elkarten erregistroan agertzen dira. Helburuak... Elkarte bat osatzeko: Eskaera, eratze akta eta estatutuak egin behar dira ordena horretan. Gero zer erregistrotan aurkeztu, lokalizazioaren arabera.

B) FUNDAZIOA

Fundazioa irabazi asmorik gabeko forma juridikoa da (irabaziak banatu ezin, jarduera ekonomiko aizan bai. Elkarten modura). Elkarteetan pertsona fisikoak behar dira elkarte osatzeko, fundazioan, aldiz, ondarea behar da. Dirutan edo ondasunetan izan daiteke (30.000 euro minimo). Ondare hori interes orokorreko helburutara bideratu behar da, ezin da bideratu negozio hutsera. Beraz hemen ez da behar bazkideen multzo bat.

Fundazioaren erabaki organo nagusia Patronatoa da. Bertako kideak patronoak dira eta ondare horren kudeaketa egin behar dutenak dira. Pertsona fisiko eta juridikoak egon daitezke organigrama horretan.

*Adibidea: Joxemi Zumalabe fundazioa edo Elhuyar fundazioa.

Fundazio askok dute lotura hedabideekin, baina zer motatakoak dira?

□ Zein motatako harremanak dituzte fundazio horiek hedabideekin?

- **Batzuk hedabideen jabe dira** (guretzat interesgarriena), euskaraz ez dira asko, beste forma juridikoak nagusi dira: eluyhar, guaixe, hamaika, jakin, ttipi-ttapa.. fundazioek argitaratzen dute haien hedabidea.
- **Beste helburu nagusi batzuk (balore ideologikoak zabaldu...)**, baina baita argitaratzaile ere: Faes fundación (PP ren fundazioa, argitaratu...), iratzar fundazioa (Sorturen fundazioa: kurtsoak...), Manu Robles Aranguiz fundazioa (ELAren fundazioa). Alderdiak kasu honetan, haien ondareko zati bat alde soizalera bideratu fundazioen bidez.
- **Talde mediatikoen menpe**, baina beste helburu/ekintza sozial batzuk bultzatzeko. Irabaziak lortzeko helburuak dituzten enpresen fundazioak. Irudi zaintzeko helburuarekin. (Fundación Atresmedia, Fundación Diario de Navarra)

Adibidea: **JAKIN FUNDAZIOA (eta jakin aldizkaria)**

Pentsamendu eta kultura aldizkaria da Jakin. Kazetaritzatik ere badu, elkarrizketa sakonak, lan sakonak... baina erdi akademikoa ere bada. Jatorri erlijiosokoa da, 1956 Arantzazun Frantziskotarren babespean sortu zen, gazteek sortu zuten, ikasleek.

Zer **bilakaera** izan zuen bere jabetza egiturak eta forma juridikoak?

- **Jarduera** autonomoa 1967tik. Alderdi erlijiosoa alde batera utzi zuen. Donostira mugitzen dira, eta Arantzazu utzi. Hori bai, legalki oraindik Frantziskotarren menpe zeuden

- **Enpresa** beregaina 1990tik. Frantziskotarrekin lotura askatu eta enpresa S.L bihurtu haiek kontrolatzeko eta irabazi asmokoak.
 - 2014. Urtean fundazio bilaaktu zen. Jakinek fundazio bihurtzea erabakitzen du. Idazleak erreleboan pentsatzen hasi ziren (aldizkaria, ondarea, marka... belaunaldi berriei uzteko). Legalki bermatu nahi zuten gero beste helburu batzuetara ez zela bideratuko ondarea (beti egongo da ondarea interes orokorreko helburuei bideratuta). Horren bidez, horretaz ziurtatu.
 - Patronatoa da Jakin Fundazioaren **erabaki organo** nagusia. Askotan gaiak argitaratzeko eta egitura horizontala, zuzendaririk gabekoa erabiltzen dute. Ondareak ez dira inoiz estatu honetan jartzen ez duen gai baterako bideratuko. Desegiten bada, antzeko fundazio batera eman ondarea.
- Kontuan hartu behar da fundazioek zerga gutxiago ordaintzen dituztela. Askotan jendeari erretiroa emateko eta irudia zuritzeko erabiltzen dira.

3. GAIA: SOZIETATE ANONIMOAK ETA SOZIETATE MUGATUAK

Zer dira **merkataritza sozietateak**? Definizioa eta ezaugarri nagusia. Dirua irabazteko asmoarekin, pertsonen arteko akordiotik sortzen da

Zein dira merkataritza sozietate **mota arruntenak**? (Hiru)

- Sozietate anonimoa
- Sozietate mugatua
- Kooperatiba

*Badaude beste batzuk baina nagusiak aurreko hirurak dira.

1. SOZIETATE ANONIMOA

Kapitalaren ezaugarri nagusia akzioetan banatzen dela da, S.A horren jabeak beraz akzionistak dira. Proporzionaltasunaren (akzioen proportzioaren, gehien duenak gehien agindu) Irizpideren arabera zatitzen da jabetza.

Akzionista bakoitzarentzat bere akzio kopuru ditu eta ondare erantzukizuna akzioei proportzionala da. Hau da jarri dudak dirua galtzen dut, ez da hotik haratago joaten (nire ondare pertsonalera), horregatik sortzen dira pertsona juridiko hauek.

Erabaki ahalmenenari eta **mozkinen** banaketari dagokionez, proportzionala da gure akzioen kopuruarekin.:

SA sortzeko gutxieneko kapitala 60.000 euro dira beharrezkoak gutxienez.

Organo erabakitzaile nagusia akzionisten batzarra da. Hauek erabakitzen dute nor dagoen administrazio kontseiluan

Organo kudeatzaile nagusia administrazio kontseilua da.

Zergatik deitzen dira sozietate anonimoak?

- Jabeek ez dutelako elkar ezagutu behar hala beharrez. Akzioak nominalak edo eramaileari izan daitezke (izen abizenik gabekoa). Gainera saltzen eta mugitzen dira
- SA guztiek ez dituzte jartzen haien akzioak salgai burtsan. Ezaugarri batzuk bete behar dituzte eta ez da jartzen kapitalaren osoa, zati bat baizik.
- SA siglak agertu behar dira derrigorrez izenean, nahiz eta gero guk hori gabe ezagutu. Atresmedia S.A=Atresmedia

Hedabideetan

- Sozietate Anonimoak oso arruntak dira hedabideetan. Hedabide potenteenak eta erraldioenak (pribatuak) honelako forma juridikoa izaten dute. Hedabide txikiagotan Sozietate Mugatuak dira ohikoenak nahiz eta salbuespenak egon
- Euskal Herrian badaude ere hedabideetan sozietate Anonimoak.

VOCENTO

- El Correo, Vocento, ABC, El Diario, SUR, HOY, LA RIOJA, El Norte de Castilla
- Vocentoren jatorria: Bi adar nagusi
 - 1- El Correo: Ybarra anaiek sortu zuten 1910. El Pueblo Vasco egunkaria. Gerra Zibilean El Correo Españolekin batu zen eta beste batzuk ere sortu (El Diario vasco...)
 - 2- Madriletik ABC (Luca de Tenak sortu). 2002. Urtean batu egiten dira bi adarrek: *Prensa Española* (ABC) eta *Grupo El Correo*. Hauek biak dira VOCENTO SAREN jabeak
- Vocento taldearen ildoak zein da? Jabeen interesekoak. Eskuinekoak, enpresarien araberakoa...

NOTICIAS TALDEA

- Noticias Taldea da E.H mailako bigarren talde indartsuena. (Deia, Noticias Alava, Gipuzkoa, Navarra, Onda Vasca)
- Bi adar:
 - 1. DEIA. EAJko kideek sortua trantsizioan 1997. (Iparragirre S.A da Deiaaren atzean dagoen, 25 bazkide ziren hasieran gero igotzen)
 - 2. 80 ko hamarkadan sortzen da Noticias de Navarra. Diario de Noticiasi aurre egiteko (eskuinekoa). Noticias de Navarra euskal begiradarekin.
*Nafarroan izandako arrakastak gipuzkoan eta araban sortzen dituzte ere Noticias de... El Correo Alavesi eta Diario Vascoi aurre egiteko baina arrakasta gutxiago.
 - 2008. urtean krisi ekonomikoagatik Grupo Noticiasek deia erosi

Enpresen jabeak ez dakizkigu baina ideologia jakin batekoak direla badakigu. Ez dago burtsan talde hau. Ildo editoriala ez da berdina egunkari guztietan. DEIA, EAJ, Diario de Navarra ez hain markatua UPNri aurre egin (geroa bai...)

BESTE BATZUK

La Información SA = Diario de Navarra. Gaur egun 800 akzionista 1903an sortu zen egungo oinordekoak.

EKHE SA (Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartea)*SA bat da nahiz eta elkarte jarri. = NAIZ, GARA. GARA Egin itxi eta gero sortu zen akzionista txikiekin. Gaur egun 10.000 akzionista dituztela esan Garak. Ezker Abertzaleko ildoak

Sapeso sozietate anonimo frantsesa = SUDOUEST . Ipar E.H El Correo, Diario Vasco... frnatzesista, eliteen aldekoa... Enpresa familiara da, Lemoin familiak XX.mendeko erdialdean sortu, inerdokoeak %80 dute

EK TSA BERRIA TALDEA

Egunkaria desagertu zenean, hango langileek (151) sortu zuten kapital minimoarekin (60.000 euro) Euskarazko Komunikazio Taldea SA. Bertan berria zegoen, baina gero beste hainbat enpresa sortu dituzte. 24.000 akzionista daude orain, izan ere hasieran Egunkariako langileak solik baziren ere, gero 50 eta 300 euro arteko akzioak atera zituzten jendeak erosteko.

Adibidez Berria egunkariaren enpresa argitaratzailearen (Euskal Editorea SL) **jabe nagusia** EK TSA da. Aldi berean EK TSAren jabeak akzioak dituzten guztiak dira. Pertsona batek ezin dezake izan %1,2 baino gehiago.

Zer **zentzu** du enpresa instrumentalak sortzeak? Zergatik ez dira egiten jarduera guztiak EK TSAren bidez? Azkartasuna, praktikotasuna... autonomia gehiago izateko dena zure kontrolean. Arriskuak bereizteko, enpresa bat txarto badoa ekonomikoki erantzulea enpresa da, ez taldea nahiz eta noski horrek min egiten dion taldeari.

2. SOZIETATE MUGATUAK

Sozietate Mugatuaren (SL) eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatearen (SRL) artean ez daude desberdintasunik, berdina dira. SL batean, SAren berdin dago banatuta jabetza. Kasu honetan ez dira akzioak, partaidetzak baizik.

Zer ondorio ditu? Zuk jarritako dirua soilik galtzen duzu. Zure ondare pertsonalak ez du arriskurik.

Organo erabakitzaile nagusia partaideen batzarra da. Hauek erabakitzen dute nor dagoen administrazio kontseiluan

Organo kudeatzaile nagusia administrazio kontseilua da.

Bereizgarri nagusia (SL eta SA) baten artea: Diru gutxiago behar da martxan jartzeko. 3.000 euroekin nahikoa zen. Garai batean goitik ere muga zegoen, baina jada ez.

Zergatik esaten zaie mugatuak (SL)bateri? Askoz kontrolatuagoa eta mugatuagoa dago partaidetzen salmenta. Beste bazkideak jakinaren gainean egon behar dira eta estatutuen arabera bazkideen batzarrak onespina eman behar du. Eskriturretan ere agertu behar da jabetza aldaketa

SL batek ezin du Burtsan bere partaidetzak jarri. Kontrolatuta dago eta ezin da horrelako arintasunarekin eta zabaltasunarekin saldu partaidetzak. SL siglak jartzea derrigorrezkoa da.

CTXT Sozietate Mugatua

- Aldizkaria da, generalista baina batez ere politikoa. Kazetaritza independentea defendatzen dute. Aurrerakoia da.
- 14 pertsonak (bazkidek) sortu zuten 2014. urtean, kazetaritza mundukoak. El Paisetik kaleratu zituzten askok bukatu zuten han, hasieran 1000 euro jarri zuen bazkide bakoitzak. Enpresa handitzen joan da eta kapital hedatzeak egin dituzte (orain 180)
- Organo erabakitzailea: bazkideen batzarra
- Organo kudeatzailea: administrazio kontseilua *Enpresa txikietan pertsona berdinek osatzen dute bi organoak gehien bat.
- Negozio eredia: doan da, baina dirua eman dezakezu bazkide bihurtuz... Boorndatez ordaintzen duten bazkideak dira ekonomikoki negozioa sostengatzen dutenak.

3. SOZIETATEEN ERATZE ETA ABIATZE TRAMITEAK

Sozietate anonimo edo sozietate mugatu berri bat martxan jartzeko bi prozedura ezberdin jarraitu behar dira. Eratze tramiteak eta

- Izenari dagokionez, Madrileko merkataritza erregistrora joan behar da. Agiri negatiboa lortu behar da merkataritza erregistroan eta gero agiri hori dokumentazioaren barruan aurkeztu behar da. Agiri horrek esango du izena erabili dezakezula
- Dirua: Gutxienez 3.000 euroko hasierako kapitala behar da.
- Estatutuak: Gure enpresaren arauak zehaztu behar dira, joko-arauak. Helburuak, hasierako kapitalak, partaidetzak, bazkidea... ere agertu behar dira. Izenik gabe baina enpresaren estruktura definituz. Zer organo mota izango ditu ere agertuko da.
- Eratze-eskriturak: Zer bazkide edo nortzuk sortuko duten, gero bazkide gehiago sar daitezke.
- **Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK). Ogasunean egin behar da, zergen konturako. Enpresaren nortasun agiria ogasunaren aurrean izango da.**
- Behin dena eginda, guztiak batu eta **erregistratu** behar da dagokigun herrialdeko (Egoitza sozialaren arabera)(bizkaia) merkataritza erregistroan. Ez gara madrilerako joan behar honetarako

Orduan zerga arloan ogasunean alta eman behar, lan arloan: Gizarte segurantzian eta udalarekiko: Gure dagokigun udalean

4. KIDE BAKARREKOA

Pertsona bakar batek sor dezake SA bat edo SL bat. Pertsona bakarreko SAU edo SLU *(UNIPERSONAL) izango da. Pertsona bakar hori normalean pertsona juridikoa izaten da

hedabideen munduan, ala ere, posiblea da pertsona fisikoa izatea (hedabideen munduan arraroa). Adibidez El Correo SLU. Vocento da U hori

Kide bakarreko sozietateetan, organo erabakitzailea pertsona bakar hori da, pertsona juridikoa bada, pertsona juridiko horren organoek hartuko dute bestearen erabakiak. Siglak adierazi beharra dago pertsona bakarrekoa dela.

Zergatik kide bakarreko sozietateak sortzeko aukera, enpresari indibiduala izateko aukera dagoenean?

Ondare erantzukizunari dagokionez: Batetik pertsona juridikoak izaten direlako jabeak eta bestetik, fisikoa bada, arriskutatuko dirua jarritakoa da (3.000). Erantzukizuna mugatzen dizu, babesteko neurri bat da sozietate bat sortzea nahi eta bazkidea soilik zu izan.

Zergei dagokienez: Sozietateen zerga ordaindu behar da, hau irabazien proportzioan doa. Enpresari indibidual gisa banabil sozietaterik gabe pertsona fisikoen zerga ordainduko dut.

Pertsona **fisikoa/juridikoa** aukerari dagokionez:

Talde mediatikoez hainbat enpresa hartu ohi dituzte euren baitan (hedabide ezberdinen argitaratzaileak, jardun espezializatuko enpresak...). Nola gauzatzen da, legez, talde bereko enpresa horien arteko lotura? Zein da zeinen jabe?

- Unidad Editorial SA (taldea): Unidad editorial Información General (SLU) (El Mundo egunkaria)
- EITB Media SAU: ente publikoa da jabe bakarra

4. GAIA: KOOPERATIBAK

Kooperatibaren ezaugarri nagusia, langileak jabea direla da. Sozietateetan bazkideak dira jabeak, honetan langileak. Gainera, bere ezaugarri nagusia **erabakitze**ko irizpideei buruz, funtzionamendu demokratikoa duela da, ezin da egon bazkide nagusirik. Adib: La Marea

Gutxienez 3 bazkide behar dira (pertsona fisiko zein juridiko) kooperatiba bat sortzeko eta kapital sozial minimoa 3.000 eurokoa da EAEn, Nafarroan 1.5000... Erkidegoaren arabera.

Zein da kooperatiba baten **organo erabakitzaile** gorenena?

Bazkide kooperatibisten batzarra

Zein da kooperatiba baten organo exekutibo edo **kudeatzailea**?

Kontseilu errektorea (admin kontseiluaren antzekoa)

Kooperatibek **abantailarik** ba al dute zergen eta gizarte segurantzaren arloan?

Bai, bi kasuetan gainera. Sozietateen zerga apalago aizan ohi da eta gizarte segurantzaren arloan ere kuotak ordaintzerakoan malguagoak edo enpresaren aldekoagoak dira. Diru laguntzak ere badaude.

Langileen jabetzakoa izan ohi denez kooperatiba, **beste inork** ezin du bazkide (jabe) izan?

- Bazkide laguntzaileak: Udalak adibidez, langileak izan gabe
- Bazkide fundatzaileak: Bazkide erabiltzaile gisa aritzen dira (erabiltzaileak, euskara elkarrekin hedabide talde batean (goiena)
- Lan bazkideak: langileak.
*Lana eta kontsumoa kooperatibizatzen denean kooperatiba mixtoa sortzen da.

Bazkide bat/boto bat printzipioari eusten diote kooperatiba hauek? Ez da beti horrela. Boto ponderatuaren sistema erabili daiteke, estautuan zehaztuta badago. Adib: goiena

Goienari buruzko bideoak dio **“irabazi asmorik gabeko kooperatiba mixtoa”** dela. Zer esan nahi du horrek? Helburu soziala duen kooperatiba aizan behar da (merkataritza jardueratik aparte). Zigilu hori lortzen bada, abantailak lortzen dira lehiaketetan, zergetan..., baina ezin dira mozkinak banatu bazkideen artean.

Beraz, zenbat kooperatiba mota bereiz ditzakegu?

- **Tamainaren arabera:**
 - o Arrunta: 3
 - o Txikia: 2
- **Jardueraren arabera:**
 - o Lan kooperatibak
 - o Kontsumo kooperatibak
 - o Kooperatiba mixtoak
- **Irabazi asmoaren arabera**
 - o Irabazi asmorik gabekoak
 - o Irabazi asmokoak

Zer izapide egin behar dira kooperatiba bat sortzeko? Izena, Hasierako kapitala, Agiri nagusiak, non **erregistratu**...

GOIENA

- Puntua, Goiena.eus, Goiena Tb, Arrasate Irratia... **hedabideren** jabe eta argitaratzaile da Goiena Komunikazio Taldea kooperatiba
- 9 euskara elkarrekin sortu zuten, tokiko euskara hedabideen aitzindaria izan zen
- Jabeak:

- Bazkide **erabiltzaileak**: eskualdeko **euskara elkarteak** (%54)
 - Bazkide **laguntzaileak**: eskualdeko **udalak** (%27)
 - **Lan** bazkideak: Goiena Taldeko hedabideetako **langileak** (%19).
- Nola osatuta dago organo exekutiboa, hau da, **Kontseilu Errektorea?** 4, 3 eta 2
 - Zer lotura du Goiena Komunikazio Taldeak **Tokikom** elkartearekin? Kidea da, Hiruka, Urola... bezala

GIZARTE EKONOMIAKO BESTE SOZIETATE MOTAK

Lan Sozietateak: Anonimoak eta Mugatuak.

- Hauen jabetza egituraren ezaugarri nagusia langileek gutxienez enpresaren erdiaren jabe direla da (%51). Langileen batzarrean gehiengoa. Kooperatibetan ez bezala, kanpo akzionistak sartu al dira beste %49an. Beraz kooperatibaren partea badute baina ezberdintasun handi horrekin.
- Zergen arloan, gizarte segurantzaren arloan... abantailak dituzte Kooperatibek bezala.

ARGIA

Gure inguruko hedabideen artean, Lan Sozietate Anonimoaren adibide bakarra, baina oso esanguratsua: **Argia**-ren enpresa, Komunikazio Biziagoa SAL. (Lan sozietate anonimoak).

- **Jabetza** egitura: Langileen esku
- Barne **antolaketa**: Erabat horizontala (orain dela 3 bat urte guztiz horizontala, zuzendaririk ez...)
- Negozio **eredua**: Eduki digitalak doakoak, harpidedun izateko zuk jarri prezioa (muga batzuen barruan) eta etxean jasoko duzu
- **Taldea**: Ametzagaiña taldea. Hedabide bakarra kaleratzen du (Argia), baina hiru enpresa gehiago ditu.

*Argia Olatukoopen barruan dago.

5. GAIA: ENPRESARI INDIBIDUALA

- Enpresak pertsona fisikoaren nortasun juridiko bera du. Ez dauka subjektu juridiko berri bat (merkataritza sozietate bat) sortu beharrik, jardun ekonomikoa izateko.
- Enpresa erabat kontrolatzen du, jabetza osoa duenez.
- Langileak izan ditzake, edo ez.
- Gizarte Segurantzari dagokionez, enpresari indibiduala autonomoa da.
- Ogasunari dagokionez, Jardun Ekonomikoen erroldan alta emanda egon behar du, merkataritza sozietateek bezala.
- Bi enpresari indibidual mota bereiziko ditugu.
 - Profesional autonomoa: bere kontura lan egiten du, autonomoa da, baina ez du soldatapeko langilerik bere enpresarentzat lanean.
 - Abokatu bat, idazle profesional bat, dendari bat... Legearen arabera enpresari indibidualak dira, baina hizkera arruntean 'profesional autonomoak' dira.
 - Enpresa-jabe indibiduala: soldatapeko langileak ditu lanean bere jabetzako enpresan.
- Komunikazioaren munduan ba al da enpresari indibidualik?
 - Free-lance guztiak, autonomoak direnez, enpresari indibidualak dira, zentzu zabalean.
 - Enpresa-jabeak: hedabide handietan jabetza banatua izatea da arruntena (merkataritza sozietateak), baina hedabide txikietan badira enpresa-jabe indibidualak. Dena den, Euskal Herriko eta inguruko hedabideen artean ez dugu kasurik ezagutzen.
- Enpresaren ondarearen eta pertsona fisikoaren ondare zibilaren artean ez dago alderik; bat dira.
- Enpresaren zor eta obligazio guztiekiko erantzukizun zuzena du enpresaburuak, mugarik gabe. Bere ondare pribatuarekin erantzun behar du, enpresak zorrik eginez gero.
- Ez dago gutxienerako kapital ekarpenik, ezta gehienekorik ere. Ez dago mugarik, ez goitik ez behetik.
- Sortzea eta mantentzea merkeagoa da, ez duelako eskatzen pertsona juridiko berri bat sortzea, pertsona fisikoak nortasun juridikoa duenez.
- Ez du Sozietateen Zerga ordaintzen, PFEZ baizik (Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga; gazteleraz, IRPF).
- Mozkin handiak baditu, sozietateek baino zerga handiagoak ordaindu beharko ditu, PFEZa proportzioan gehiago handitzen da Sozietateen Zerga baino.
- Ez dauka enpresa eratzeko tramiterik egin beharrik, baina hainbat tramite egin behar ditu, enpresa-jarduna abian jartzeko: Gizarte Segurantzari, Zerga Agentzian, Udalean, Patenteen eta Marken Bulegoan, eta abar. Martxan jartzeko tramite gutxienerako eskatzen dituen enpresa mota da.
 - Tramite gehienak DUEren bidez egin daitezke (Documento Único Electrónico).
 - Tramite guztiak ikusteko:

6. GAIA: BARNE ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK

Zer da **organigrama**: Modu grafiko batean entitate baten antolamendua. Enpresa baten egitura, lan antolamendua, hierarkiak, lan-harremanak era grafiko batean definituta.

□ Enpresaren egituratze edo antolakuntzan hiru irizpide erabakigarri:

- **Lan banaketa.** Funtzio banaketa bat alegia
- **Espezializazioa.** Funtzio banaketan kontuan hartzekoa
- **Hierarkia.** Egituran ikusten da.

□ Bi dimentsiotan gauzatzen dira irizpide horiek:

- **Dimentsio horizontala:** Nola banatuko dira funtzioak harreman hierarkiko gabe, horizontalean
- **Dimentsio bertikala:** Hierarkia nola dago banatuta

*Organigrama gehienetan bi dimentsioak daude aldi berean. Bi zentzutan egituratzen dira lanak, aginteak...

□ Dimentsio bertikalaren ikuspegitik, hiru antolaketa maila:

- **Maila estrategikoa:** Epe luzerako ildoak markatu. Oro har, enpresaren organo sozialak, jabeak, jabeen ordezkariak... Akzionisten batzarra, admin kontseiluak ... (organo asanbleario eta exekutiboa alegia)
- **Maila taktikoa:** Epe ertaineko erabaki/ildoak. (CEOa edo kontseilari ordezkaria, soldatapeko zuzendaritza taldeak
- **Kudeaketa maila:** Eguneroko erabakiak. Estructura osoa, langile bakoitzak bere ardura maila izango du.

*errealitatean mailak ez dira asko berrizten.



□ Ongi bereizi beharreko kontzeptuak:

- **Enpresaren organo sozialak:** maila estrategikoak alegia
- **Barne egiturako zuzendaritza maila ezberdinak:** Beherakoak



BERRIA


Hedabideak argitaratu edo ekoiztu ohi dituzten informazio enpresetan, maila taktiko-operatiboa bi atal nagusitan banatu ohi da:

- **Administrazioa (kudeatzaileak): Zuzentzen dutenak, erabaki hartzaileak**
- **Erredakzioa (eduki sortzaileak): Langileak edo**


Lurralde dimentsioa ere badute hainbat informazio enpresen organigramek. Ez enpresa guztiek baina Berriak adibidez badu. Erredakzio nagusia Gipuzkoan baina beste lau herrialdeetan erredakzioak ere.





● Maila estrategikoa:



● **Maila taktikoa:**



● **Kudeaketa maila:**



Nolako organigramak dituzte, ordea, informazio enpresa txiki ugariak? Denetarik dago.

Adibide bat: CTXT (Revista Contexto SL): Organo sozial eta barne egiturako zuzendaritzan daude, bietan alegia. Bi kontzeptu ezberdin dira, bi eginbehar ezberdin, baina pertsona berberak osatzen dute enpresa txikietan.

Gutxieneko egiturak (lan praktikoan kontuan hartzeko)

● **Organo sozialak:**

- Bazkideen/akzionisten **batzarra**. Oso kide gutxikoa izan daiteke.
- **Administratzailea(k)** edo Administrazio Kontseilua (merkataritza sozietateetan) eta zuzendaritza batzordea (elkartean). Edo administratzaile bakarria izendatu ere egin daiteke, admin kontseilu barik.

● **Barne antolaketa** operatiboa edo funtzionala:

- Izan daiteke bertikala edo horizontala. Edukien sormena eta kudeaketa arloa bereizi behar.

GIZA BALIABIDEAK

Lan kontratua: jabeen eta langileen artean egiten den akordio da. Langileak enpresariaren konturako lan zehatzak egiteko konpromisua hartzen du. Baten eskubideak betearen betebeharrak dira.

Kontratu motak

- ✓ Kontratu mugagabea.
- ✓ Aldi baterako kontratua:
 - Obrako kontratua: lan jakin bat irauten duen bitartean irauten du
 - Behin-behineko kontratua ekoizpen gorabeherengatik: lan kopuruaren gorabeheren menpe daude kontratu hauek
- ✓ Prestakuntzarako kontratua: langileek hezkuntza formaziorako
- ✓ Praktika kontratua: ikasleak lan esperientzia izan dezan

Nomina? Soldata aldiro jasotzen du langileak.

- ✓ Nominak zehaztu behar duena:
 - **Oinarrizko** soldata: Bestelakoak ez dira kontuan hartzen: antzinasuna...
 - Soldata **gordina**: Enpresak langileari ordaintzen dion GUZTIA, plusekin eta guztiarekin
 - **Kotizazioa**: Zati bat kendu Gizarte Segurantzarako
 - **PFEZ**: Pertsona Fisikoen Gaineko Zerga
 - Soldata **garbia**: Gordina - PFEZ- Kotizazioa

GIZARTE SEGURANTZA

Gizarte Segurantzaren bidez langileari bermatu. Gizartea babesteko sistema arau jakin batzuen multzoa da, erakunde batek edo batzuek lagunduta gizarte-prestazioak eta finantzaketa ematen dutenak.

- **Gizarte prestazioak:** Osasun sistema.
- **Gizarte laguntzak:** Langabeziak

Baliabideen jatorria? Enpresetatik eta langileek ordaintzen dena

□ **Zein dira Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinak?**

- **Erregimen Orokorra:** Kontratupean lan egiten dutenek, beste batzuentzako lan egin, soldatapean
- **Erregimen bereziak:** Langile autonomoak, etxeko langileak, funtzionarioak, nekazariak

□ **Zer da kotizazioa?**

Ordaintzera behartuta gaudena

- **Kotizazio-oinarria:** Langile bakoitzaren kasuan zenbat ordaindu behar den kalkulatzeko erabiltzen den diru kopurua. Langileak jasotzen duen dirua alegia.
- **Kotizazio-tipoak:** Irabazien gainean (aurrekoaren gainean), zenbateko portzentajea ezarri
- **Kuota:** Ordaintzen duguna bien arteko erlazioa egin ostean

□ **Nork du kotizatzeke betebeharra?**

Langile zein enpresari guztiak

□ **Kotizatzeke betebeharra noiz sortu eta noiz bukatzen da?**

Kontratupekoen kasuan, kontratuaren hasieratik bukaera arte.

Lan praktikorako kontuan hartzeak:

- **Soldatak:** langileko 14 hileko soldata kalkulatu behar da. Soldata **gordina** kalkulatu behar da, ez garbia bakarrik (gero, langileari soldata gordinetik kenduko dio Ogasunak PFEZari dagokiona). Gainera, **oporrak** beste langileren batekin ordezkatu beharko balira, beste hilabete bateko soldata gehitu beharko litzateke, langileko.

- **Gizarte Segurantza:** langile bakoitzarengatik Gizarte Segurantzaren kuota zatia ordaindu behar du enpresak, soldata gordinetik aparte (soldata gordinaren **laurdena** gehitu behar da langile bakoitzeko, gutxi gorabehera). Langileak kuotaren zati txikiago bat ordaintzen du bere soldata gordinetik (soldata gordinaren %5 inguru).

LAN HARREMANA

□ **Zer da enpresa batzordea?**

Enpresa handiek soilik dute eta langileen ordezkariak osatzen dute

□ **Nola aukeratu dira kideak?**

Modu demokratikoan, hauteskunde sindikalen bitartez. Sindikatuen bitartez aurkeztu ohi dira hautagaiak

□ **Enpresa guztietan al dago enpresa batzordea?**

50 langiletik goraketa bai, bestela langile ordezkariak. 30tik 50ra hiru delegatu adibidez

□ **Zer da hitzarmen kolektiboa? Zer arautzen du?**

Batzordearen eginbehar nagusietako bat da enpresariarekin ituntzea hitzarmen kolektiboa. Langile eta enpresariaren ordezkariak lan esparru zehatz batean lan baldintzak eta helburuak zehaztea.

7. GAIA: KUDEAKETA EKONOMIKOA

A) TRIBUTUAK

Admin publikoak bere aurrekontuetarako herritarrengandik jasotako diru baliabideak.

- **Zergak:** Behartuta gaude admin publikoak gero diru hori erabiltzeko.
- **Tasak:** Zerbitzu konkretu batengatik ordaintzen dugu. Kiroldedia adib. edo x lekuan aparkatzeko.

ZERGAK

- Ogasunak jasotzen dituzten zergak, hau da administrazio publikoak ogasunaren bitartez.
- Hemen herrialde bakoitzak ogasun bat (5: EAEkoak, naf + frantz) (erregimen berezia), Espainia mailan aldiz bakarra (agencia tributaria)
- Zerga Motak:
 - **Zuzenak:**
 - PFEZ. Pertsona fisikok minimo (irabazi) batzuetatik gora ordaindu behar.
 - Sozietateen zergak, sozietateek ordaindu behar dute irabazien arabera

- **Zeharkakoak:** BEZA, produktuak erosterakoan. Zeharkakoa da ez dugulako ezer egin behar, admin publikora joan. Jada prezioan sartuta dago.
- Beste sailkapena:
 - **Gehikorrak:** PFEZ. Gero eta gehiago irabazi orduan eta portzentai handiagoa ordaindu behar da, ez solik igoera zenbaki absolutuetan, portzentajearen ere. Gehien irabazten duenak, ehunekoa handiagoa ordainduko du.
 - **Proporzionala:** Irabazien proportzioan ordaindu behar da, zenbat eta gehiago irabazi orduan eta gehiago ordaindu baina ehunekoa aldatu barik. PFEZan ehunekoa igotzen bada, honetan ez. Ehuneko berdina da sozietate guztientzat.
 - **Gutzikorrak:** BEZA. Zenbat eta gehiago irabazi zure diruarekiko gero eta proportzi gutxiagoa ordaintzen duzu. 5000 euro irabazita koka kola baten BEZA txikiagoa izango da 2000 irabazten badu baino, diru gehiago izatea azken finean
- **Zein dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) ezaugarriak? Zenbatekoa izan ohi da?**

Lanaren errendimendua, autonomo bezala izan ditzakegun irabaziak, daukagun kapitalak sortutako interesak. Gure ondare guztia kontuan hartu, ez bakarrik soldata. Espainia % 47, ia erdia handientzat. Soldatetan %20+-

- Zer da **Sozietateen gaineko zerga?** Nork **ordaintzen** du? Aktibitate komertzialaren bitartez posibleak dituztenak. Enpresa, irabazi asmorik gabekoa elkarrekin...
- **Galerak** izan dituen enpresa batek ordaindu behar al du? **Ez**
- Zein dira Sozietateen gaineko Zergaren **tipok?** Hau da, irabazien zer **ehuneneko** ordaindu behar dute enpresek? Ogasun bakoitzak bat du eta enpresa motak bakoitzaren arabera ehuneko ezberdinak ordaindu behar.

	GIP	BIZK	NAF	ESP
Enpresa handiak	%24	%24	%28	%25
Enpresa txikiak	%20	%20	%19	
Elkarrekin	%10 edo %19	%10 edo %19	%10 edo %19	%10

- Enpresa guztiek beren irabazien ehuneneko horiek ordaintzen dituzte **benetan?**

Kenkarien eta hobarien bitartez asko jaisten da ordaintzen dutena.

DIRU KONTUAK

Kontabilitatea:

- Enpresa bat bideragarria, errentagarria izan behar da. Errentagarritasun atalazkoa neurtzeko tresna nagusia da kontabilitatea.
- Datu ekonomikoaren erregistro eta zenbatzeko teknika.
 - Tresna nagusia: Urteko kontuak. Beste tresnak:

- **Balantzea:** Bi zutabe: Aktibo (nora bideratuta ondarea(nola gastatu) eta pasiboa (nondik datorren ondarea) . Bi zutabeek berdina eman behar dute. Momentu zehatz baten enpresaren ondarearen argazkia. Ez bilakaera, ez joera, baizik eta une jakin batean zelan dagoen enpresa adierazten du balantzeak
 - **Memoria:** Testuan balantzeak eta irabazi eta galeren kontuak emandako informazioa jartzea edo azaltzea.
 - **Irabazi eta galeren kontua:** Epe batean zer sarrera eta zer irteera izan dituen enpresak. Zer emaitza beraz, zenbat irabazi du? Edo zenbat galdu du? Garai jakin batean beraz izandako emaitzak, ez balantzea bezala (hau uneko argazkia solik). Normalean urterokoa izaten da, 6 hilabetekoa ere batzuetan.
- Irabazi eta galeren kontuan emandako emaitzaren arabera ordaintzen da Sozietateen zerga. Irabaziak X koak badira, Sozietateen zergak % Xkoa izango da.
 - Ebitda: Zergak ordaindu aurreko irabaziak. Honi zergak kendu behar zaizkio geratzen zaiguna ikusteko.

Zein eratako irabaziak eta galerak bereizi ohi dira?

- **Arruntak:** Enpresa batek bere jardun komertzialean dituen sarrera eta irteerak. Gastu arruntetan oreka bat egon behar da bideragarritasun ekonomikoari begira.
- **Ez ohikoak:** Ohikoak ez ziren sarrera eta irteerak.
- **Finantziarioak:** Maileguen ondorioz ordaindu beharreko interes eta amortizazioak.

Zein eratako finantza iturriak dituzte enpresek?

- Finantzabide **propioa:** Enpresa barrutik lortutakoak
 - Erreserbak: Irabaziak gordetzea, ez inbertitzea
 - Kapital Gehikuntza: Enpresaren diru arazoei aurre egiteko bazkide gehiago lortu. Akzio edo partaidetza berriak sortu eta bazkide berriak bere diruarekin sartzen dira. Enpresaren kapazitate finantzarioa handitzen da beraz
 - Kapital murrizketa: Kapitalaren zati bat zorrak kitatzeko erabilita. Murrizten dugun kapitala, zorrak ordaintzeko erabiltzea alegia.
- *Enpresaren kapital sozialaren bi heren baino gehiagoko zorra badago, behartuta zaude kapital murrizketa egitera legez, (ez da egiten solik behartuta zaudelako zuk nahi duzulako egiteko aukera ere badago.. Baina mugak ditu murrizketak, 3000 eurokoa bada muga sortzeko, hortik behera ezin da murriztu.
- **Kanpo** finantzabideak: Enpresaren baliabidetik kanpoko ditu iturriak: maileguak...
 - Ohikoena kreditua edo mailegua da.
 - Aurrekoak interesak sortzen ditu, bueltatu behar dugu mailegua + interesa
 - Maileguaren kantitatea, amortizazio epea, interesen tasa, kobratuko dizkiguten komisioren arabera kalkulatzen dira interesak
 - UTB: Urteko tasa baliokidea. Zenbat ordainduko dugu urte oso batean mailegua jasotzeagatik (ehunekoetan)

Maileguen bermea:

- Pertsonala: Beste pertsona batek ziurtatzen du guk ordainduko dugula. Abala alegia.
- Erreal: Ondasun jakin batekin bermatzen dugu maileguaren ordainketa. Hipotekan adibidez etxea jartzen dugu berme gisa.

*Mailegu bat eskatzen dugunean, urteko kontuan sartu behar da urte horretan ordaindu beharko duguna solik naiz eta mailegua aurten eskatu.

8. GAIA: NEGOZIO EREDUA

Informazio enpresen negozio eredia aztertzeke, beharrezkoa zaigu hedabideen jabe diren enpresen bi berezitasun garrantzitsu aintzat hartzea.

- Lehen berezitasunak enpresaren helburuekin du zerikusia: Informazio enpresek helburu sozialak edo etikoak ditu helburu ekonomikoetatik aparte. Adib: La Marea eta publia.
- Bigarren berezitasunak merkatu bikoiztasunarekin du zerikusia. Zein dira bi merkatu horiek (haiei begira egiten dute lan)?
 - o Zuzena: Gure produktu informatiboa zuzenean kontsumitzen duen taldeari. Eduki kontsumitzaileak dira gure kontsumitzaile zuzenak
 - o Zeharkakoa: Gure espazioa erosi publia sartzeko, erosi egiten dute espazioa gure komunikabidean
- Beraz, bi bezero mota izan ohi dituzte. Bien arteko harreman zuzena, elkarreragina
 - o **Informazio kontsumitzailea**: Arreta jendearengan
 - o **Publizitate espazioen eroslea**: Beti da diru iturria, baina hori funtzionatzeko merkatu zuzenak funtzionatu behar du, arreta jaso behar du komunikabideak gizartean.

Beraz, informazio enpresa batek bi bezero motekin (kontsumitzailea eta iragarlea) daukan harreman motak ezaugarritzen du, neurri handi batean, enpresa horren negozio eredia.

- o Kontsumitzaileekin daukaten harremana:
 - Kobratzen ez dietenak:
 - Papereko doako prentsa (El nervión adib: ez du kobratzen egunkaria, solik publitik ditu irabaziak)
 - Irrati pribatuak
 - Ordain hesirik gabeko webak
 - Kobratzen dietenak:
 - Tb ordainpekoak
 - Papereko prentsa

Egunkarien sarrerak edo diru iturri nagusiak:

- Publizitateko eta salmentetako sarreren pisua: SERek adibidez irabazi gehiago ditu publian, baina Berrian adibidez salmentan
- Offline eta online sarreren pisua: Berrian paperak ematen du diru gehiago, PRISA ere.

Kontsumitzaileen merkatuaren menpeko merkatua da publizitatearena. Publizitate tarifen katalogoetan agerikoa da lotura hori.

Prentsaren publizitate tarifek modalitate ugari dituzte, baina, funtsean, moduluka saltzen dute. Modulu horien prezioa aldakorra da, faktore ugariaren arabera: (11,12,13 PW)

- Eguna. Asteburu edo astean zehar...
- Kokapena. Lehen orrian edo barrukoetan...
- Bikoiti edo bakoitia. Bakoitia bada orria garestiagoa da
- Kolorea edo zuri beltza
- Iragarlearen arabera. Pubi instituzionalek gehiago ordaindu behar dute normalean
- Trukea. Argiak Berriaren modulu bat atera eta alderantziz.

*Geroz eta irakurle gehiago izan egunkariak, orduan eta garestiagoa izango da. Adib El Pais da garestiena, baina proportzioan ez, irakurle gehiagora iristen zara.

Publizitate digitaleko formatu berriek publizitate tarifak ezartzeko **neurri berriak** ekarri dituzte:

- CPM: Coste por Mil Impresiones. Ohikoena. Kontadore bat da, pertsona bat sartzen den bakoitzean bat zenbatu
- CPC: Coste por Click. Garestiagoa. Aurrekoan webean sartzea eta ikustea bazen, hontean sartu eta klik egin behar da zenbatzeko.
- CPA: Coste por Adquisición. Irakurleak publizitatean sartu eta zerbait erostea edo ekintzaren bat egitearen ostean zenbatzen du

Irrati eta Telebistetan ere tarifak ezberdinak dira. Ordua, audientziak...

- Aleen salmenta eredu tradizionala:
 - o Saltokiak:
 - o Harpidetza:
- Eduki digitalen salmentan, aldaketa garrantzitsuak mende honetan prentsaren alorrean:
 - o Mende hasiera: Hasi ziren hedabideak, hedabide digital bezala funtzionatzen. Oso gutxik kobratzen zuten edukiengatik online edizioan
 - o Bigarren hamarkada: 2011an New York Timesek kobratzen hasi eta dena aldatu. Naiz ere 2013an jarri zuen ordain hesia eta El Correo 2015an. El Mundo 2019an.
- Euskal Herriko prentsan:
 - o Ordainpekoak: Vocento, Diario de Navarra, SudOest
 - o Ordain hesirik gabeko: Noticias Taldea, Euskarazko prentsa hutsa (Berria), tokikoak ere doan.
 - o

Kidetza Sistema: Edukia lantzen dut, eskuragarria jartzen dut, baina jende guztiak irakurri dezan eskatzen dizut ordaintzea, hau da, denek irakurri ahal izateko norbaitek ordaintzea behar dut. The guardian eredu nagusia.

Diru-laguntzek pisu handia dute **euskara hutseko** hedabideen negozio eruedetan eta bideragarritasun ekonomikoan. Euskara hutsezko hedabide bat ezinezkoa delako errentagarria

izatea. Gastuak irabaziekin kubritzea oso zaila da, merkatu potentziala eta erreala laburra geratzen da, beraz Diru-laguntzak behar dira. Aurrekontuaren herena betetzen da EAEn diru-laguntzekin. Laguntza emaileak: 3 aldundiak, bi komunitateak, udalak...

Nagusiki erderaz ari diren komunikabideek euskaraz zeozer argitaratzeagatik ditu-laguntzak jasotzen dituzte, batez ere online edizioetan.

Euskara hutseko hedabideentzako **laguntza sistema berria** hitzartu zuten Hekimenek, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 2018an. Horren arabera:

- Zein hedabide laguntzen ditu Eusko Jaurlaritzak? E.H mailako hedabide nazionalak. Berria eta Argia. Ikus-entzunezkoak ere: hamaika Tb...
- Foru Aldundiek? Tokiko hedabideak, prentsa

Hedapenak baldintzatzen ditu **publizitateko** prezioak eta publizitate sarrerak. **Salmentetako** sarrerak ere hedapenaren arabekoak dira. **Kidetza** sisteman ere zuzenean eragiten du noski. Eta diru-laguntzak jasotzerako orduan ere, hedapena faktoreetako bat.

Beraz, hedabide baten negozio ereduak funtzionatzen duen eta bideragarria den edo ez aztertzeko orduan, gakoa da nolako hedapena duen jakitea.

Eta nola **neurtzen** da hedapena?

PAPEREAN

PRENTSAREN tirada (zenbat inprimatu egunero batez beste) eta **salmenta** edo circulation (inprimatuetatik zenbat iritsi dira irakurleen eskuetara, gehienak salduz, baina gutxi batzuk doan) datuak:

- Hau OJDk neurtzen du. Auditoriak egiten ditu egunkariak ematen dituzten datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.
- Zer nolako metodologiaz? Auditoria
- Datuak non daude eskuragai? OJDko webgunean. Ordainpekoa da baina Uniak badu pasahitza eta erabiltzailea: UPV/ML291Q

Irakurle kopuruak:

- Nork neurtzen du? EGMk zenbat irakurle dituen neurtzen du. OJDkoa baino zifra altuagoak, saldutako egunkari batek irakurle bat baino gehiago izan dezake
- Zer nolako metodologiaz? Hiru olatu inkesten bidez
- Datuak non daude eskuragai? Haien webgunean eta irekian gainera.

Hiru neurketa mota:

- Neurtzaile homologatua: Espainiako hedabide digitalen elkarteak lehiaketa publikoa egiten du eta neurtzaile ezberdinak aurkezten dira. Irabazleak du lau urtez erreferentziako neurketaren "titulua"
- Inkesta bidezkoa: EGM
- Google Analytics: OJD interaktiva

IRRATIA

Irakurle kopuruak:

- Nork neurtzen du? EGM. Prentsan ez bezala, hemen nagusitasun osoa du
- Zer nolako metodologiaz? Inkestak
- Datuak non daude eskuragai? Irekiak bere webgunean

Bi neurketa mota:

TELEBISTA

***hemen lehiaketa egiten da zer enpresak duen erreferentzialtasuna ezartzeko**

- Neurketa sistema nagusia: Audimetroen bitartez
- Inkesta bidezkoa

Zer du CIEsek? Nola?

- Inkesta bidez egiten dute, baina EGMen ez bezala lurraldez lurralde ere egiten dute. EAEn, Nafarroan...
- Euskal Herrian SER da entzunena
- Hedabideen artea irakurrienak: Bizkaian El Correo, Araban El Correo, Gip Diario Vasco, Nafarroan Diario de Navarra, Ipar E.Hn Sudouest

Tokiko Hedabideen hedapen datua, Tokikom eta Mediakit bitartez

9. GAIA: ENPRESA PUBLIKOAK

Ezaugarriak:

- **Sorrerari** dagokionez: Lege baten bitartez sortzen dira enpresa publikoak, propio onartzen dira lege baten bitartez.
- **Agintariei** dagokionez: Herri erakundeetan onartzen dira (ia beti legegileetan (eusko legebiltzarra) entitateen agintari gorenak.
- **Finantzioari** dagokionez: Aurrekontu publikoetatik iristen zaie diru gehiena. Diru-iturri nagusia da, baina ez bakarra.

Forma juridikoa:

- Merkataritza sozietate forma hartzen dute normalean, SA normalean. Baina hauen berezitasun nagusia akzionista bakarra ente publikoa dela da. Ez daude hainbat bazkide tarta banatzen dutenak.
- Gardentasunari dagokionez, baldintza bereziak bete behar dituzte. Lege batek diru-kontuak, karguen irabaziak... publiko egitera behartzen die.
- Hedabideen sektorean pisu handia dute enpresa publikoek (eitb, france tv, rtve, efe, bbc). Kantitatean pribatuak dira gehienak (antena 3, tele 5...), baina publikoek aurrekontu eta baliabide handienak izaten dituzte normalean, beraz oihartzun eta inpaktu handi dute.

EITB

- 1982. Urtean, EAE eratu berritan. Lehen eusko jaurlaritza 1980an sortu baitzen. Hasieran ez zegoen garbi Madriletik onartuko zuten. Hasieran kate bakarra zen, gehiena euskaraz baina eguerdiko informatiboa erderaz. 1986an sortzen da etb2. 2008 et4 eta 2014 etb3
- Irratiak 1982 Euskadi Irratia, 83 Radio Euskadi, gaztea 90
- Zer **forma juridiko** izan du orain gutxi arte EITB Taldeak eta zer forma du gaur egun? Lehen lau SAK osatzen zuten EITB, orain dela bi urte EITB Median elkartu ziren guztiak.
- Zuzendaritza organoak eusko legebiltzarrean aukeratzen dute. Zuzendari nagusia (gehiengo sinplea) eta administrazio kontseilua (bi herenekin) eta 15ek osatzen dute. Hortik 11 alderdiek proposatutako dituzte. Beste 4 kideak gizarte erakundetatik: Euskaltzaindia, eitbko sindikatuak...
- Eusko Legebiltzarrean kontrol batzordea dago, EITBren kontrol mekanismo gisa. Zuzendari nagusiak ematen ditu azalpenak, berak nahi duelako edo eskatzen diotelako.

*EITBren DIRU ITURRIAK: %87a aurrekontu publikoetatik dator, beste publizitatea (7,5)...

RTVE: 1937an sortzen da RTVEren aurrekaria (Radio Nacional) TVE 1956an sortu. Geroztik hainbat kate eta irrati dituzte, alderdi digitaletatik aparte.

- Forma juridikoa: SA da gaur egun, SAU alegia. Unipertsonala
 - 2006ra arte bi sozietate zituzten, bat irratientzako eta bestea telebistentzako
 - SEPI enpresa publikoaren bitartez dute jabetza. SEPI da RTVEre akzionista bakarra, EFEn akzionista bakarra, Correosen akzionista bakarra... batzuetan ez da bakarra baina gehiengoa du.
- 2006ko oinarria duen legea, gero erreforma 2017an. Legeari lotuta hitzarmen bat dago eta finantzazioa bakarrik arautzen duten beste lege bat. Beraz, EITBn ez bezala, ez da lege bakarra
- RTVEk ez du pubirik, 2009.an hartu zuten erabakia.
 - Diru iturri nagusia telebista pribatuek haien publizitatean irabazitako %3a, tb publikoari eman beharko diete eta hori da diru iturri nagusia. Teleoperadoreak %0,9 (movistar, vodafone...)
 - Plataforma berriek (netflix, amazon...) haien irabazien %1,5 bideratu beharko dute RTVErentzat. Eta teleoperadoreek 0,9 hori ez dute ordaindu beharko
- RTVEko presidentea eta Administrazio Kontseilua hautatzeko, Espainiako gorteetan (presia kongresuan +5 kide) eta senatuan beste lau kide.

EFE AGENTZIA

- Hasieratik da publikoa 1939an sortu zen, frankismoarekin.
- SAU da, SEPI da akzionista bakarra
- Diru iturriak:
 - Laguntza publikoak (%63)
 - Propioak, aldiz, (%37)

FRANCE TELEVISIONS

- Telebisten taldea besterik ez da, irratiak kanpoan daude
- SAU bat da ere
- **Diru iturriak**
 - Telebista bat izategatik etxean zerga ordaindu, gero hori TB publikoari eman (diru iturrien gehiengoa da)

- Frantzian ere pribatuek ehuneko bat eman behar diete publikoari
- Publia dago, baina mugekin. Gaueko 20:00tatik aurrera ez dago publia, Prime Timean beraz ez. (diru sarreren %25 publia)

BBC

- Gaur egun ez da soilik Erresuma Batuko telebista irrati publikoa, mundu mailako zerbitzua ematen dute
- Hainbat hedabide: 9 tb eta 10 irrati Erresuma Batu osorako, gero zerbitzu nazional eta erregional gehiago ere badituzte
- Mundu mailan langile gehien dituen irrati-telebista
- Ditu iturriak:
 - Hauek ere, telebista gailu bat izateagatik zerga ordaindu. (%60a baino gehiago)
 - Beste %25 sarrera propioengatik. Mundu mailan publia saldu, Erresuma Batuan ez dago publiko zerga ordaintzen dutelako.

EURONEWS

- 1993. Urtean, golkoko lehen geraren testuinguruan CNNk izugarritzko oihartzuna izan zuen. Orduan Europar Batasunan, hamar tb publikok (rtve,rai,tv frnace) batu eta euronews sortu, USAko CNNri aurre egiteko.
- Etengabe albisteak, baina herrialde bakoitzean hizkuntza ezberdinak (13 hizkuntza orotara)
- 97an jada %51an kapital pribatua sartu zen. Gaur egun esku pribatuetan dago erabat (%88) gehiena Alpack inbertsio fondoak du. Sorrerako tb publiko gehienek jarraitzen dute baina solik dute %12a

10. GAIA: EUSKAL HEDABIDEEN BILGUNEAK

Arrosa Sarea:

Arrosa Irrati Sarea Euskal Herriko 23 irrati biltzen dituen federazioa da. Bertan, askotariko irratiak biltzen gara: irrati libreak, udal irratiak, (herrialdeko irratiak) eskualde mailakoak, irrati nazionalak... Guztiok barnebiltzen gaituena, baina, euskara da. Sarea osatzen dugun irration elkargunea euskara izan da hasieratik. Gure irratietan euskararen presentzia elkarlanari esker areagotu eta bultzatzeko helburuak batzen gaitu.

- Jatorria:
 - 80ko hamarkadan du. Hamarkada horretan sortu ziren irrati libre edo piratak (kontrainfoa, info alternatiboa, forma juridikorik gabe, lizentziarik gabe). Adib: Hala bedi Gasteizen.
 - 80.ko hamarkadako Tokiko hedabideak (irradiak). Ziberuko boza...
- 2001. Urtean bilgune bat sortzea erabaki zuten. E.H zuzena kontzertua (batzarra) egin zuten Arrosa herrian. Diru-iturri handiak aurreikusten zituzten eta lokal bat hartu zuten Andoianen eta hiru langile jarri zituzten lanean: magazina sortu egunero sarean emititzeko... baina bi urtera ikusi zuten ez zela bideragarria eta egitura profesional hori bertan behera geratu.
- 23 irrati biltzen ditu gaur egun. Txikiak eta euskara dute biltzeko arrazoia eta bultzatzeko. Horrek ez du esan nahi solik euskarazkoak direla, hala bedi adibidez ez, baina Arrosa Sarean egiten duten guztian bai euskaraz dela. Naiz irrati sarea dago ere.

Negozio ereduak:

- Ez dute irabazi asmorik, baina batzuk badaude SL edo Kooperatiba bezala. Baina espirituz ez dute irabazi asmorik. Gehienak elkarrekin dira. Batzuk oraindik ez dute ez lizentziarik, ez forma juridikorik. Beste batzuk komunikabide taldeen parte dira.
- Egitura profesional txikia, baina gehienak borondatez lan egin, gutxi batzuk kobratu
- Askok ez dute publiko

Zertarako Sare bat?

- Egunero *Zerbitzu* magazina egiten du, Arrosa Sareak ekoizten du.
- Irratsio trukaketa sistema dute haien artean.
- Webgune bat dute podcastekin...

Euskal Irratiak izeneko sarea.

- Ipar E.Hko irratiak dira eta alde aurretik batu egin ziren. Lau dira orain. Ia programazio gehiena komunean dute.

TOKIKOM

Tokiko euskara hutseko hedabideen bilgunea. 80.ko hamarkadan sortzen dira orain Tokikomen dauden hedabide gehienak. 97 topagunea sortu euskarazko aldizkari eta federazioak, hortik gero hedabideek Tokikom sortu 2012

TOKIKOM euskarazko **76 toki komunikabidek osatutako sarea da**. 2012an sortu zen, ordura arte Topagunean bildutako toki komunikabideek Hedabide Sailari gorputz juridiko propioa ematea erabaki zuten. Bazkideak 28 dira. Era guztiak formatuak daude: astekari, egunkari tb, irrati...

Espirituz irabazi asmorik gabekoak dira, baina forma juridiko aldetik denetarik dago. Kooperatibak, SL, Fundazio... eta gehienak elkarrekin. Doakoak dira Tokikomeko hedabide guztiak webean. Paperekoan, aldiz, doan batzuek, baina beste batzuek kobratu egiten dute.

- Denek dute publiko diru-iturri moduan.
- Laguntzak ere, udal, aldundi...
- Harpidetzak bazkideen kuotek ere pisua. Komunitate bat dira azken batean.

Tokikomen sinergia dute ardatz:

- Batuta negoziatzen dute erakundeekin
- Publiko elkarrekin saldu. Hedabide guztietan, eskualdekoak, herrikoak...
- Webguneak oso antzekoak dira, eskema bera jarraituz. Edizioa sistema berdina, tekniko berdina... zerbitzari komun bat dute bideo, artxibo... biltzeko.
- Lan-poltsa elkartua dute.
- Ahots bateratua dute.

Gurean.eus: Tokiko hedabideen albiste guztiak batu egiten dituen webgunea.

Zut eta Txap mugikorrerako egunkariak ere sortu dituzte.

HEKIMEN

Euskarazko hutseko gizarte ekimeneko hedabideak bildu, hau da, publikoak ez direnak. 2012. Urtean sortu, eta diru-laguntzetatik sortua. Gainera, 2017an adostu zuten diru-laguntza sistema berria.

Bi enbor nagusi:

- TOKIKOM
- Berria

Euskarazko hedabideak:

Ezaugarriak:

- Euskara hatsezkoak
- Irabazi asmorik gabekoak, nahiz eta Berria adibidez badago.
- Laguntzak eta harpidedunak dira diru-iturri nagusiak.

Hekimen zertarako? Sektorearen ahotsa bada hainbat auzitan, formakuntza arloan ere badaude (ikastaroak eman...).

Hekimenek proposatu eta sustatu du **Behategia**:

- Euskal Hedabideen Behatokia (Behategia) **antena** bat da. Antena bat hedabideen mundura zuzendua; eta antena bat euskal hedabideei begira dagoena, euskaraz diharduten hedabideen eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa neurtzeko.